DOITU lantegia: Zer hobetu dezaket nire irakaskuntzaren plangintzan?

ECTS kreditu-kopurua: 2 **Kodea: ECTSA1901**

Hartzaileak

Ikastaro hau, irakasten aldez aurretiko eskarmentua izanik, ikasgai jakin bateko plangintzan, garapenean eta ebaluazioan hobekuntzak sartu nahi dituzten irakasleei zuzenduta dago, tituluan ezarritako jarraibideekin eta IKD, Ikaskuntza Kooperatibo eta Dinamikoa, ereduarekin bat eginda etor daitezen. Alderdi hauek Docentiaz UPV/EHUko irakasleen irakaskuntza jardueraren ebaluazio programaren baitan Ikasleen Gidak ebaluatzeko kalitate irizpide gisa hartzen dira.

Sarrera / Ikastaroaren deskribapena

Unibertsitatean irakasleek euren irakasgaia planifikatzearen erronkari aurre egin behar diote, ikasleen ikaskuntza emaitzarik hoberenak lortzeko. Ikastaro honetako parte-hartzaile bakoitzak, irakasgai jakin batean aldez aurretik izan duen esperientziaren azterketatik abiatuta, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan hobetu beharreko alderdiak identifikatu beharko ditu, irizpide zientifiko eta akademikoei eta UPV/EHUren IKD ereduari jarraituz eta Docentiaz programaren irizpideei modu arrazoituan erantzunez. Ikastaro teoriko-praktikoa da, eta prestatzaileek gidariarena egingo dute, parte-hartzaileek ikaskuntza autonomoa eta elkarlanekoa sustatzen dituzten estrategiak eta teknikak eskura ditzaten, ebaluazio etengabe eta formatiboa bermatuz.

Horretarako parte-hartzaile bakoitzak, ikasgaiaren gida ofiziala, zein bere aldez aurretiko eskarmentua aintzat hartuz, bere plangintza hartu eta doituko du ikasle gida bihur dadin. Ikasle gidak bi eginkizun ditu: irakasgaia aurkezteko bitarteko nagusia da eta, ikasturtean zehar, irakasle eta ikasleentzako bidaia orri gisa erabiltzen da. Helburua honako hau izango da: ongi egituratutako gida osatuak izatea, ikaskuntza bermatzeko informazio nahikoa dutenak, argi idatzita eta ikasleek ulertzeko modukoak. Horrez gain ikaskuntza jarduera jakin bat diseinatuko da, metodologia aktibo eta kooperatiboarekin (IKDrekin) bat datorrena eta testuinguruari egokitutako ebaluazio formatibo eta etengabeaz lagunduta dagoena.

Ikastaroan garatu beharreko gaitasunak

1. Norberaren irakaslanari buruzko hausnarketa eta autorregulazio prozesuak garatzea.
2. Irakaskuntza-ikaskuntza prozesua ezartzea, ikasleen ikaskuntza autonomoa eta elkarlanekoa ardatz izango dituena.
3. Ezarritako gaitasunak garatzeko metodologia aproposak aplikatzea.

4. Etengabeko ebaluazio proposamen formatiboak zehaztea, ikasleak ikasketa emaitzak lortzera bideratuko dituztenak.
5. Irakaskuntzaren plangintza doitzea, zehazki ikasle gida, irakasgaiaren eta IKD ereduaren araberako ikaskuntza-irakaskuntza prozesuaren garapena ahalbidetzeko moduan.

Gaiak

Irakasgaia graduaren testuinguruan.
Ikaskuntza dinamiko eta elkarlanekoa. Ikaskuntza autonomoa.
Gaitasunak. Ikaskuntzaren helburuak eta emaitzak.
Ikaslea ardatz duten metodologiak. Eginkizunak.
Irakaskuntzaren plangintza.
Ebaluazio etengabe eta formatiboa.

Eginkizunak

Gaitasun espezifikoa	Eginkizun mota	Parte-hartzaileari emandako denbora[1]
1	- Irakaslanean hobetu beharreko alderdiak identifikatzea irakasgai batean	4P+5EP
1, 2 eta 3	- Irakasgaiko gaitasunen garapenean ikaskuntza autonomorako eta elkarlaneko ikaskuntzarako estrategiak erabiltzea eta jarduera egokiak hautatzea	3P+3EP
4	- Irakasgaiaren testuingururako eta ikasketa helburuen lorpenerako egokiak diren ebaluazio tresna egokiak hautatzea	5P+7EP
1, 4 eta 5	- Irakasgai bateko irakaskuntzaren plangintza eta ebaluazio sistema birdiseinatzea (Ikasle Gida).	6P+14EP

Ebaluazioa /Akreitazioa

Akreditazioa eskuratzeko bete behar diren betekizunak:
-Gutxienez ordu presentzialen %75eko asistentzia.
-Ikastaroan zehar ezarritako ariketak eta entregagai guztiak burutzea (Hobetu beharreko alderdiei buruzko txostena, Ikaskuntza jarduera bat diseinatzea eta doitutako Ikasle Gida)bakoitzean zehazturiko irizpedeen arabera ebaluatuz.

Gaitasuna	Ebaluazio-tresna	Ebaluazio-irizpideak	Azken notaren gaineko portzentajea
1	Hobetu beharreko alderdiei buruzko txostena	Indarrak eta ahuleziak identifikatzea Graduko testuinguruarekiko koherentzia Norberaren irakaslanari buruzko hausnarketa mailak	25
1, 2 eta 3	Ikaskuntza jarduerak hautatzea	Estrategiak gaitasunekin koherenteak izatea Ikaslearen autonomiaren eta elkarlanaren sustapena	25
1, 4 eta 5	Irakaskuntzaren plangintza eta ebaluazioa (Ikasle Gida).	IKD eredurako eta gradurako egokia Tekniken askotarikotasuna eta egokitasuna Ikaslearen autonomiaren eta elkarlanaren sustapena	50

[1] Ordu presentzialak (P) eta ez-presentzialak (EP)

Datuak

Iraupena
18 ordu presentzial eta 30 ez-presentzial

Datak

Irailaren 10ean eta 24ean eta urriaren 8an eta 22an

Ordutegia

15:00-19:30

Tokia

Elurreta Eraikina / Aulario Las Nieves , 105 gela

Parte-hartzaile kopurua
24 gehienez

Hizkuntza
Euskara

Campusa
Araba

Irakasleak:
SAE/HELAZeko prestatzaileak

Izena emateko epea
2019ko maiatzaren 2tik 10era, biak barne

Izena emateko baldintzak
Nagusiki UPV/EHUn irakaslanean urte batzuetako esperientzia duten irakasleak, haien irakasgaiaren plangintza berrikusi eta hori hobetu nahi dutenak, ikasleen ikaskuntza errazten duten estrategiak eta teknikak gehituta. Ikastaro hau Docentiaz programako beren emaitzak hobetu nahi dituzten irakasleentzat bereziki gomendagarria da.

Inskripzioa langilearen atariaren bidez egingo da. Plaza kopurua mugatua denez, Iraker programako partaideek lehentasuna izango dute. Horrez gain parte-hartzaileak izena emateko ordenaren, hautaketaren lehentasunaren eta campusaren arabera hautatuko dira.

Matrikula baliogabetzea
Lantegian izena eman eta onartua izan den norbaitek ezin izango balu bertara joan 72 ordu aurretik jakinaraz dezan eskatzen diogu, sortutako hutsunea kanpoan geratu den beste pertsona bati eskaintzeko. Horrela egiten ez duenak ezin izango du parte hartu hurrengo UIPRE deialdian.